



NIGHT&CO
Let's party with us

NIGHT&CO

KANALAK

Gure enpresak erabiliko dituen kanal zehatzak:

Alde batetik, kanal zuzena izango dugu. Kanal hau gure webgunea izango da, bertan gure aplikazioak zer nolako aukerak izango dituen azalduko da. Webgune hau gure taldeko kontaktuez baliatuz aurrera eramango dugu, informatikan espezializatuak direnak. Guk aplikazioan aldaketak egin ahal izango ditugu eta gertatzen den guztia kontrolatu.

Beste aldetik, zeharkako kanala izango dugu. Gure aplikazioak publizitatea eta hauek salduko dituzten pertsonaia ezagunak izango ditu. Youtuber nahiko ezagunekin hitz egingo dugu, **Joneyre** delakoa adibidez, gure ingurukoa dena (3.867 jarraitzaile ditu), eta bere sare sozialetan promozionatuko gaitu. Gainera, **Raquelreix** youtuberrarekin kontaktuan gaude, 300.000 jarraitzaile baino gehiago dituena. Abantaila honetaz baliatuz, jendeari hurbilduko gara eta sare sozialek jende gaztean eragin handia dutenez, oso ondo etorriko zaigu, gure enpresa batez ere jende gazteari zuzenduta baitago.

